



# DELIBERAZIO PROZESUA

## *SARBIL: lurraldea, energia eta etorkizuna*

Prozesu honen bidez, Sarbil Eguzki S.L. enpresak aurkeztutako instalazio agroboltaikoaren aurrean Etxauriko Udalak izan behar duen jarrera zehaztu nahi dugu (Etxauriko Mandatua). Horretarako, proiektuaren aldeko eta aurkako jarrerei errespetuzko eta eztabaida eraikitzaileko esparru bat eskaini nahi diegu, Udalarentzako txosten adostu batekin amaituko dena.

Saio guztiak **Etxauriko udaletxean izango dira, 18:00etatik 20:00etara**.  
Irekiak izango dira etorri nahi duen edozein herritarrentzat.

### PROZESUAREN AURKEZPENA

**(Martxoak 30, astelehena)**

Prozesuaren arrazoiak, metodologia, markoa eta Etxauriko Udalaren konpromisoa.

### 1.SAIOA: DATUAK ETA OINARRIAK

**(Apirilak 14, asteartea)**

Hainbat adituren eskutik, hitzaldiak:

- Arlo juridikoa, legeak eta Tokiko Energia Komunitateak.
- Instalazio agroboltaikoen ingurumen inpaktua eta bateragarritasuna.
- Lurraldea eta antolamendua.

### 2.SAIOA: IKUSPUNTUEN AURKEZPENA

**(Apirilak 22, asteazkena)**

Ikuspegi desberdinak aurkeztu eta eztabaidatzeko saioa.

### 3.SAIOA: DELIBERAZIOA ETA PROPOSAMENAK

**(Apirilak 28, asteartea)**

Etxauriko Mandatua idatzi eta proposamenak adosteko saioa.

- Proiektuari ezarri beharreko baldintzak
- Nafarroako Gobernuari aurkeztu beharreko alegazioen oinarriak
- Herritarren ahotsa izateko irizpideak

### EMAITZAREN AURKEZPENA

**(Maiatzaren 4ko astean)**